

PRENTSA OHARRA

Esne-ustategiak klima-aldaketaren berora egokitzea

1

[Bilbo, 2015eko uztailaren 24a] BC3, Basque Centre for Climate Change, erakundeak **Optibarn** proiektua jarri da abian; ikerketa-proiektu horren bidez esnetarako behien ukuiluen klimatizazioa optimizatu nahi da, tenperaturaren igoerari eta klima-aldakortasunari aurre egiteko.

Optibarn proiektua **ERANET +** proiektu bat da, **Nekazaritza, Elikadura Segurtasuna eta Klima Aldaketari** buruzko Baterako Programazioko **EU FACCE JPI** Europako ekimenaren bidez finantzatzen ari dena.

ERA-NET ekimenak Europar Batasuneko I+G esparru-programak finantzatutako eta sustatuko jardueren barruan daude. Zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotzen diren jarduerak, programak eta ekimenak finantzatzera zuzentzen diren Europa osoko nazio-mailako zein eskualde-mailako erakundeak (ministerioak, berrikuntza-agentzien, eta abar) sareak eratzean datza. ERA-NET eskemaren helburua da programa eta ekimen horiek koordinatzea.

“**Klimari dagokionez zentzuzkoa den nekazaritza**” gisa ezagutzen den paradigma berriaren azterketan oinarritzen da **Optibarn** proiektua. Klimari dagokionez zentzuzkoa den nekazaritzaren bitartez, nekazaritzako eta abeltzaintzako sistemen ahalmena hobetu nahi da – elikadura-segurtasunaren alde– eta egokitzeko beharrak eta arintzeko aukerak txertatu nahi dira garapen iraunkorrek estrategietan. Alemaniako ATB (Leibniz Institute for Agricultural Engineering Potsdam-Bornim) erakundeak koordinatzen du proiektua. Sareak nazioarteko hainbat aditu biltzen ditu, eta Alemaniako, Danimarkako, Israelgo eta Espainiako ikerketa-zentroek, unibertsitateek eta enpresek hartzen dute parte.

BC3 (Basque Centre for Climate Change) eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Animalia Zientzia eta Teknologiako Institutua dira proiektu horretan parte hartzen duten Espainiako erakunde bakarrak.

Aurretiazko azterketek agerian utzi dute animalien ongizatea (haien termoerregulazioko ahalmenaren aldaketaren bidez, esate baterako) eta esnetarako behi-ustategien produktibitatea oso sentikorrek eta kalteberak direla muturreko beroa gertatzen denean.

Egindako klima-aldaketaren proiektzioen arabera, inguruabar horiek gero eta posibleagoak izango dira, eta horrek galera ekonomiko handiak eragingo ditu, baldin eta ustategiak egokitzen ez badira. Ildo horretan, esnetarako behi-aziendaren ukuiluek arreta berezia merezi dute; izatez, oro har, aireztapen naturala izaten dute eta, hartara, bestelako azienda baino kalteberago izango da.

BC3, kontaktua: Dr. Agustin del Prado agustin.delprado@bc3research.org /
Dr. Elena Galán. elena.galan@bc3research.org / **Telefonoa:** 94-4014690

OPTIBARN proiektu horren barruan, **ukuilu-egitura berriak testatuko dira modu esperimentalean** eta hobeto jakingo dugu ukuiluaren arkitekturak barne mikroklima nola baldintzatzen duen muturreko klima-baldintza jakin batzuen mende.

Proiektuak 4 lan-arlo ditu. Arlo horietan ukuilu-mailako simulazioak egingo dira, laborategiko saiakuntzak egingo dira eta nekazaritza-ustiategietan neurketak egingo dira, betiere **klima-aldaketak esnetarako behi-aziendaren ukuiluetan duen eragina** zehazteko.

Horrez gain, ekonomiaren eta ingurumenaren mailako inpaktuak ebaluatuko dira, baita esnetarako behi-aziendaren ukuiluak egokitzeko neurriak ezartzearen arriskua ere, klima-aldaketako balizko hainbat inguruabarretan.

BC3k **klimari dagokionez zentzuzkoak diren abeltzaintzako neurri berrien ekonomiaren eta ingurumenaren arloko inpaktuen ebaluazioaren arloa gidatuko du** Optibarn proiektuaren barruan; bertako ikertzaile Agustin del Prado eta Elena Galán izango dira buru. Horretarako, eta besteak beste, BC3k Rothamsted Research erakundearekin batera garatutako **SIMSDAIRY** simulazio-modeloa erabiliko dute esnetarako behi-ustiapenen iraunkortasuna aztertzeko.

BC3, Basque Centre for Climate Change

BC3 klima-aldaketaren arloko ikerketa-zentro bat da, guztira 12 herrialdeetatik datozen 42 ikertzailek baino gehiagok osatzen dutena. Anil Markandya irakasleak gidatzen du zentroa. Zentroa 2008an eratu zen, Eusko Jaurlaritzaren BERC programaren esparruan, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta IHOBEn laguntza izan zuen. Erakundearen sorreran, klima-aldaketaren arloko ikerketan bikaintasuna sustatzea hartu zen aintzat.

BC3ko profesionalek egiten duten ikerketari esker eta profesional horiek parte hartzen duten lankidetzaren sare zientifikoaren ikerketari esker, zentroa mundu-mailako erreferentzia gisa finkatu da. Horren lekuko dugu ICCG erakundeak berriki –eta hirugarren urtez jarraian– aintzatetsi duela BC3 zentroa klima-aldaketaren ekonomiaren eta politikaren arloan itzal handiena duten lau Think Tank-en artean. www.bc3research.org

BC3, kontaktua: Dr. Agustin del Prado agustin.delprado@bc3research.org /
Dr. Elena Galán. elena.galan@bc3research.org /**Telefonoa:** 94-4014690